

Behinola,*
 ba joian Artzubialde-ko mutil gaztea,
 goizean goiz, aizkorea lepoan eta janaria zorroan, basoan, gora.
 Atxarte-ko errekea igarotean
 dzart! oratu*egiten deutsoe lepotik eta erreka ertzera eroan.
 – Nortzuk zaituet? Zer nahi dozue? –dinotse estu mutilak.
 – ... –baina hareek erantzunik ez.
 – Jarein! Jarein!*–dinotse behin eta barriro.
 Baina hareek jaramonik*ez.
 Halango baten,
 DANG! DANG! DANG! eleizako kanpaiak egunsentia*iragarritz.
 Entzunaz batera
 dzist! dzist! danak doaz ihesi*... bat izan ezik:
 besotik oratuta eukana gure mutilak.
 – Nor haunat?^{zaitut}
 – ... –baina honek ere erantzunik ez.
 Andrazkoa zan berau, polita eta ederra.
 Eta mutilak hartu eta eroan egin eban etxera.
 Etxean,
 – Nor haunat? Zelan don izena? –esaten eutsan.^{dozu}
 – Mutua dok hau! –inoan berekautan.^{da}
 Baina... ez! Ez zan mutua. Hara: behin sutondoan egoala
 galdarako esneak ganez egin behar ebala ikustean
 – Txuria*gora! Txuria gora! –esaten hasi zan.
 – Enè! Ez haunat mutua!^{zaitut} –esan eutsan mutilak orduan.
 Eta neskeak ezin ukatu*... eta erantzun egin eutsan berba eginaz.
 Gero, barriz, ... isildu ere ez zan egiten!
 Aurrerantzean,*mutila pozik, eta neskea ere pozik. Biak pozik.
 Eta neska-mutilak ziranez... maitemindu*egin ziran,

antziz eta negarrez

eta ezkontzea erabagi*eben.
 Eta ezkon-deiak*egiten hasi zan abadea eleizan.
 Baina herrian herritarrek...
 – Hi! –esan eutsan behin batek–
 Badakik nogaz ezkontzen hazan?^{barjakizu zarean}
 – E?! Zer bada?
 – Ikusi deutsozak neska horri oinak?^{deutsozuz}
 – Oinak ikusi?^{egiozuz}
 – Ba, ikusi egiozak...
 Eta susmotsu*eta kezkatu*etxera abiatu*zan.
 Etxean, oinak ikusi eutsozanean... harri eta zur*gelditu zan.
 – Ahate-oinak*jeukazak! Neska eder-galant hau laminea joat!^{deukaz dot}
 –esan eban berekautan. Eta negarrari emon eutsan.
 Bizi izateko poza ere galdu egin eban.

Eta atsekabearen atsekabez... hil egin zan!
 DANG! din-dang! DANG!... hil kanpaiak.
 – Nor hil dok?^{da}
 – Artzubialde-ko mutila!
 Biharamonean, eleizara bidean,
 laminea ere han joian danen artean.
 – Haren arimeaz ezin izan nok jabetu
 baina gorpuaz bai jabetuko nazala! –inoan bere barruan.
 Baina abadea zuhurra izanik,
 eta haren asmoakaz konturaturik aurea hartu eutsan
 eta behingo baten*sartu eban gorpua eleizan eta atea itxi.
 Eta laminea kanpoan gelditu zan,
 antziz eta negarrez.



* behinola = en cierta ocasión
 * oratu = heldu, asir, agarrar
 * jarein = askatu, soltar, libertar

* jaramon = caso
 * egunsentia = amanecer
 * ihesi = iges egin, huir

* txuria = zuria
 * ukatu = negar
 * aurrerantzean = en adelante

* maitemindu = enamorarse
 * erabagi = decidir
 * ezkan-deiak = proclamas

* susmotsu = desconfiado, receloso
 * kezkatu = preocupado, intranquilo
 * abiatu = encaminarse a

* harri eta zur = patidifuso
 * ahate = pato
 * behingo baten = en un santiamén
 * antziz eta negarrez = animiendo v llorando